

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat

Hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea beharrezkoa dela kontuan hartuta, Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak ikusita, honako hau ebatzi dut:

Lehena. Hasiera ematea prozedura bati, Arabako Foru Aldundiari proposa diezaion Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillako Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua betetzeko gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionario izendatzea, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduren baten bidez eta adierazitako lehentasunaren arabera.

Bigarrena. 10 egun balioduneko epea irekitzea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, bete beharreko lanposturako hautagaiak parte hartzeko eskabideak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduaren arabera, eta adierazten diren agiriak erantsita.

Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioa izendatuko da, eta lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiak izango dute lehentasuna.

Egoera bakoitzaren barruan lehentasuna izango du Eusko Jaurlaritzak eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun-hurrenkera ezarrita, eta Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak aldeko txostena emanda, hautagai bakoitzari eskatzea hamar egun balioduneko epean destinoa duen toki-erakundearen aldeko txostena aurkez dezala, aipatutako artikuluetan adierazitakoaren arabera, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak ere.

Laugarrena. Hautagaiak aurkeztu ezean, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurari jarraitzea.

Bosgarrena. Ebazpen honen berri ematea Osoko Bilkurari hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostu-ezaugarriak:

Izena: Idazkaritza-Kontuhartzailea.

Lan-harremana: gaikuntza nazionaleko funtzionarioa.

Eskala: gaikuntza nazionala.

Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

Taldea: A2.

207/1990 Dekretuaren maila: 24.

Berariazko osagarria: 20.013,62 euros.

Hizkuntza-eskakizuna: C2.

Derrigortasun-data: 2021eko maiatzaren 27a.

Laguardia, 2023ko azaroaren 13a

Lehendakaria

JOSÉ M^a ELVIRA CEBALLOS

ERANSKINA

..... Jn./And.a NAN duena, jakinarazpenetarako helbidea herria..... eta telefonozenbakia....., gaikuntza nazionala duen Toki Administrazioiko funtzionarioa, azpieskalakoa, eta, gaur egun, lanpostua betetzen ari dena (e) ko toki-erakundean, lanpostuaz jabetzeko datarekin egindako izendapenaren bidez, (edo jarduneko zerbitzura itzultzeko egoeran dagoena - lankidetzalantpostuak kentzea - izendapen askeko lanpostuak uztea)

AZALTZEN DU

Jakin duela Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako idazkari-kontuhartzailer lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen, zerbitzu-eginkizun edo metaketa bidez bete daitekeela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak beteta, indarrean dagoen legeriaren arabera eta egin beharreko izapideak egin ondoren,

ESKATZEN DU

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako idazkaritza-kontuhartzailer lanpostua behin-behineko izendapen, zerbitzu-eginkizun edo metaketa bidez betetzeko prozeduran parte hartzea (ezabatu dagokiona).

Honekin batera doaz:

– NANaren fotokopia.

– Gaikuntza nazionaleko toki-administrazioiko funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

– Metatzen ari den lanpostua eskatuz gero, metatzen ari den izendapenik betetzen ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

..... (e) n, 20.... koren.(e) an

Sinadura: